5.– Interesatuek ez dituzte aurkeztu beharko jada Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren esku dauden indarreko dokumentuak. Kasu horretan, eskaeran jakinaraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 35. artikuluaren f) idatz-zatian ezarritako moduan eta baldintzekin.

*9. artikulua.*– Aurkeztutako eskaerako akatsen konponketa.

Dagokion Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoak, aurkeztutako dokumentazioan akats edo zehaztasun ezaren bat antzematen badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta honek 10 eguneko epea izango du zuzentzeko; halaber, jakinaraziko dio zuzendu egiten ez badu erabakia hartuko dela uko egitea aitortuz, horrela jasotzen baita urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. eta 71.1. artikuluetan.

*10. artikulua.*– Eskaeren azterketa eta ebaluazioa.

1.– Aurkeztutako eskaeren azterketa eta ebaluazioa Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoari dagokio. Bulego horrek eskatzaileari, eskaera bakoitza behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkoa iruditzen zaion dokumentazio eta/edo informazio osagarria eskatu ahal izango dio.

2.– Eskaerak aurkezteko epea igarota, Lurralde Bulegoek Ebaluazio Batzordeari igorriko dizkiote espedienteak Aginduan aipatutako baldintza objektiboak betetzen ote dituzten aztertzen duten txosten teknikoekin batera.

3.– Ebaluazio Batzordeak egiaztatuko du Arau Erregulatzailean ezarritako baldintza subjektiboak betetzen direla, eta proposamena luzatuko dio organo eskumendunari ebatzi egin dezan. Ebaluazio Batzordea ondorengoek osatuko dute:

– Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzaren titularra, edo eskuordetu den pertsona, Batzordearen presidentetza berea izanik eta boto-berdinketak ebatziko dituena.

– 5 batzordekide:

– Gipuzkoako Lurralde Bulegoko burua.

– Arabako Lurralde Bulegoko burua.

– Bizkaiko Lurralde Bulegoko burua

– Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzaren 2 teknikari, ahots eta botoz; batek, Batzordearen Idazkari-lanak egingo ditu

5.– No será preceptiva la presentación de aquellos documentos vigentes que ya se encuentren en poder del Departamento Industria, Comercio y Turismo. En este supuesto, se hará constar en la solicitud, la fecha y órgano o dependencia en que se presentaron, en los términos y con los requisitos establecidos en el apartado f), del artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 9.*– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

En caso de que la Oficina Territorial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo correspondiente advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud en la documentación presentada, lo comunicará al solicitante, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición. Transcurridos dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se dictará resolución declarando el desistimiento, de conformidad con lo establecido en los artículos 42 y 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 10.*– Análisis y Evaluación de las solicitudes.

1.– Corresponderá a las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo requerir al solicitante cuanta documentación y/o información complementaria consideren necesaria para la adecuada comprensión y posterior evaluación de cada una de las solicitudes.

2.– Transcurrido el plazo de presentación de solicitudes, las Oficinas Territoriales remitirán los expedientes a la Comisión de Evaluación, junto con un informe técnico en el que se analice en cada uno de ello el cumplimiento de los requisitos objetivos recogido en la Orden.

3.– La verificación del cumplimiento de los requisitos subjetivos establecidos en la norma reguladora será realizada por una Comisión de Evaluación, que elevará propuesta al órgano competente para resolver. La Comisión de Evaluación estará compuesta por:

– El titular de la Dirección de Promoción Turística, o persona en quien delegue, que ostentará la Presidencia del Comité y dirimirá con su voto los empates.

– 5 Vocales:

– El Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa.

– El Jefe de la Oficina Territorial de Alava.

– El Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia.

– 2 Técnicos de la Dirección de Promoción Turística, con voz y voto, uno de los cuales actuará como Secretario de dicha Comisión.

Ebaluazio Batzordeak, laguntzak esleitzea erabakitzeko proposamena egingo dio organo eskumendunari eta laguntzaren zenbatekoa zehaztuko du Agindu honen 2. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz.

4.– Aukeraketa Batzordeak gaitasun osoa du erabakitzeko, eta erabakiok bozketa bidez hartuko dira. Artikulu honetan aurreikusita ez dagoenerako, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen II. Kapituluko II. Tituluan ezarritakoa aplikatuko da.

*11. artikulua.–* Ebazpena.

1.– Turismoa Sustatzeko Zuzendariak erabakiko du, aurreko artikuluan aipatutako proposamena ikusita, aurkeztutako zein eskaera onartzen diren eta zein atzera bota, eta dagokionean, aurreko artikuluan aurreikusi bezala, esleitutako laguntzen zenbatekoak.

Erabaki hori eman eta interesatuari jakinarazi beharko zaio, dagokion deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik hasi eta 6 hilabeteko epean gehienez.

2.– Eskatzaileei laguntzak emateko erabakiak bananbanan jakinaraztearen kalterik gabe, onuradunen zerrenda eta emandako diru-laguntza Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Printzipio Ordenatzaileei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Emango den Erabakiak ez du bide administratiboa agortuko, eta gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango da Turismo sailburuordearen aurrean, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak ezarritako epean eta moduan.

4.– 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, erabakia emateko aurreikusitako epea interesatuari ezer jakinarazi gabe agortu bada, eskatutako laguntza atzera bota dela ulertu behar da.

*12. artikulua.–* Laguntzak kudeatzeko organoa.

Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio Agindu honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-lana egitea, Agindu honetan beste organo batzuei berariaz esleitu zaizkien gaietan izan ezik.

*13. artikulua.–* Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek ondorengo betebeharrak dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Zentzu horretan, diru-laguntza eman zaionaren jakinarazpena jasotzen den unetik hamabost eguneko epea igarota enpre-

La Comisión de Evaluación realizará la propuesta de resolución de concesión de ayudas al órgano competente para su concesión, con indicación de la cuantía de la ayuda que se estime teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 2 de la presente Orden.

4.– El Comité de Selección será soberano en la adopción de sus acuerdos, que se llevarán a cabo mediante el procedimiento de votación. En lo no previsto en este artículo será de aplicación lo establecido en el Título II Capítulo II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 11.–* Resolución.

1.– Corresponderá al Director de Promoción Turística dictar la resolución por las que se conceden o se deniegan las solicitudes presentadas, y el establecimiento, en su caso, de la cuantía de las ayudas concedidas a propuesta de la Comisión de evaluación prevista en el artículo anterior.

La resolución deberá dictarse y ser notificada al interesado en un plazo máximo de 6 meses contado desde el día siguiente a la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Sin perjuicio de la notificación individual a los solicitantes de las resoluciones de concesión de ayuda, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de los beneficiarios e importe de subvención concedida, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre,

3.– La Resolución que recaiga no agotará la vía administrativa, pudiendo interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Turismo, en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez transcurrido el plazo previsto para dictar la resolución sin que ésta se haya notificado al interesado, podrá entenderse desestimada la ayuda solicitada.

*Artículo 12.–* Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción Turística la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Orden, salvo aquellas cuestiones asignadas específicamente a otros órganos en la presente norma.

*Artículo 13.–* Obligaciones de los beneficiarios.

Los beneficiarios estarán obligados a:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la con-

sa onuradunak espresuki eta idatziz uko egiten ez badio, diru-laguntza hori onartu duela ulertuko da.

b) Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Ogasun, Ekonomia eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, jasotako laguntzekiko euren zereginak betez, eskatzen dioten informazio guztia aurkeztea.

c) Helburu berberarekin, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik jasotako diru-laguntzak edo laguntzak, sarrerak edo baliabideak eskuratu dituela jakinaraztea.

d) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

e) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, aurkeztutako eskaerei buruzko ebaluazioa eta erabaki egokiak egiteko, eskatzaileei beharrezkoak ikusten dituen behar beste dokumentazio eta argibide eskatu ahal izango die.

f) Onuradunak nahitaez aipatu behar du Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntza, turismoaren sustapenerako «Euskadi, atsegin handiz» mezua erakutsiz diruz lagundutako proiektuarekin bat datorren era ahalik eta egokienean. Era berean, proiektuaren emaitza diren produktuen ale bat gutxienez emango da berau burutu izana justifikatzean, adibidez foiletoak, egitarauak, bideoak, CD-ROMak edota proiektua gauzatzen ari dela egiaztatzeko eskatzen den beste edozein.

*14. artikulua.–* Jarraipena eta kontrola.

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak egoki ikusten dituen ikuskapenak eta egiaztapenak burutuko ditu diru-laguntza jasotako proiektuaren garapen eta exekuzioari buruz, eta onuradunek, eskatzen zaien informazio osagarria eman beharko dute. Halaber, esleitutako diru-laguntzei buruz egoki ikusten dituen egiaztapenak burutuko ditu eta berau justifikatzeko edozein dokumentazio eduki ahal izango du eskuragarri.

2.– Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzak, Ebaluazio Batzordearen bidez, maiztasunez aztertuko du aurreikusitako jarduerak Aginduko helburuetara ea egokitzen diren, eta beharrezko neurri zuzentzaileak finkatuko ditu, Ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko beharrezko egiaztapenak burutuz.

*15. artikulua.–* Justifikazioa eta diru-laguntzaren ordainketa.

1.– Onuradunak, diruz lagundutako jarduketak burututakoan, edo edonola ere, diru-laguntzarako eskae-

cesión de la subvención el beneficiario no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, así como por la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones respecto a las ayudas percibidas.

c) Comunicar la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o entes tanto públicos como privados.

d) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

e) El Departamento de Industria, Comercio y Turismo podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación y/o aclaraciones complementarias estime conveniente para la adecuada evaluación y resolución de las solicitudes presentadas.

f) El beneficiario deberá necesariamente hacer mención de la colaboración del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, mediante la difusión del mensaje de promoción turística «Euskadi con mucho gusto», en la forma más idónea de conformidad con las características del proyecto subvencionado. Asimismo se hará entrega de al menos un ejemplar de aquellos productos en que se haya plasmado el proyecto, tales como estudios, folletos, programas, videos, CD-Rom, etc.; así como de cualquier otro que se solicite para verificar la realización del proyecto, en el momento de la justificación de la realización del mismo.

*Artículo 14.–* Seguimiento y Control.

1.– La Dirección de Promoción Turística realizará las inspecciones y comprobaciones que estime oportunas en relación con el desarrollo y ejecución de los proyectos subvencionados, debiendo aportar los beneficiarios cuanta información complementaria les sea solicitada. Igualmente, podrá realizar las comprobaciones que estime oportunas respecto a la ayuda económica concedida y tendrá acceso a toda la documentación justificativa de la misma.

2.– La Dirección de Promoción Turística, por medio de la Comisión de evaluación, analizará periódicamente la adecuación de las actividades previstas a los objetivos de esta Orden, fijando las medidas correctoras necesarias, pudiendo realizar las comprobaciones que estime oportunas para garantizar el cumplimiento de las condiciones impuestas en la Resolución.

*Artículo 15.–* Justificación y pago de la subvención.

1.– El beneficiario una vez realizadas las actuaciones subvencionables, y, en cualquier caso, antes del 1

ra aurkeztutako urtearen hurrengo martxoaren 1a baino lehen, dagokion Lurralde Bulegoan, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar du:

a) Diru-laguntzaren justifikazioa.

b) Fakturen koadroa.

c) Jatorrizko fakturak eta horien fotokopiak (egiaztapenerako), eta lehen aipatutako faktura-koadroarekin bat etorri behar dute.

d) ETE bat bada, Sozietateen gaineko Zergaren azken aitorpenaren kopia edo, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, betiere eskaera egiteko unean aitorpen-epea itxita badago, edo Auditoretzako txostena, horretara behartuta dauden enpresentzat.

e) ETE bat bada, TC2ren kopia bat, hala eskaeraren aurreko ekitaldiko abendukoa nola diru-laguntzaren justifikazioaren aurreko hilabetekoa. Kooperatiben eta ondasun-komunitateen kasuan, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrera edo Autonomoen Erregimen Berezira lotutako enpresako langile-kopuruaren egiaztagiria.

2.– Ordainketa tramitatzen den datan, Ogasun eta Finantza sailburuordearen 1991ko urriaren 7ko Aginduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura eskuratutako diru-laguntzen onuradunen obligazioak betetzea egiaztatzeari buruzkoan, edo ordezkatzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen direnean, egiaztapena Agindu honen 8. artikuluko 3. idatz-zatiko g) paragrafoan ezarritako eran egingo da, betiere eskatzailearen berariazko baimenarekin.

3.– Lurralde Bulegoek egiaztatuko dute laguntzen xedea diren jarduketak burutu egin direla –gastu justifikatuen eta erakutsitako materiala aztertuz–, eta laburbilduz, Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla. Era berean, beharrezko ikusten duten dokumentazio eta informazio osagarria eska dezakete. Aipatutako alderdi guztiak egiaztatu direnean, Lurralde Bulegoek txosten bat igorriko diote Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzari, diru-laguntzaren dagokion likidazioa proposatuz egindako gastuaren arabera.

Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa likidatzeko, jardueraren kostuari edo burutu den gastuari (onuradunak justifikatutakoa), esleipenaren ebazpenean definitutako finantzaketaren portzentajea aplikatuko zaio.

*16. artikulua.*– Diru-laguntzaren baldintzen aldaketa.

1.– Diru-laguntza esleitzerakoan, eta edozein kasutan, beste hainbat Administraziok edo erakunde publiko edo pribatuk eta, hala badagokio, helburu bera duten beste edozein sarrera edo baliabide ematerakoan

de marzo del año siguiente al de la presentación de la solicitud de la subvención, deberá presentar, ante la Oficina Territorial correspondiente, la siguiente documentación:

a) Justificación de la subvención.

b) Cuadro de facturas.

c) Facturas originales con fotocopia para su verificación, que tendrán que corresponderse con las especificadas en el cuadro de facturas antes mencionado.

d) En el caso de ser una PYME, copia de la última declaración del Impuesto de Sociedades o, en su caso, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cuyo plazo de declaración se encuentre cerrado en el momento de la solicitud, o informe de Auditoría para las empresas obligadas a ello.

e) En el caso de ser una PYME, copia del TC2, tanto del mes de diciembre del ejercicio anterior a la solicitud como el del mes anterior al de justificación de la subvención. En el supuesto de cooperativas o comunidades de bienes, documento acreditativo del volumen de plantilla sujetos al Régimen General de la Seguridad Social o al Régimen Especial de Autónomos.

2.– En la fecha en que se tramite el pago, cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la referida acreditación se realizará en la forma establecida en el párrafo g) del apartado 3 del artículo 8 de la presente Orden.

3.– Las Oficinas Territoriales comprobarán que las actuaciones objeto de ayuda han sido realizadas - mediante el análisis de los gastos justificados y material soporte aportado- y que cumple, en definitiva, con los requisitos establecidos en la presente. Así mismo, podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesaria. Una vez verificados todos los aspectos mencionados, las Oficinas Territoriales emitirán un informe que se remitirá a la Dirección de Promoción Turística proponiendo la liquidación de la subvención que corresponda, de conformidad con el gasto realizado.

El importe definitivo de la subvención se liquidará aplicando al coste de la actividad o gasto efectivamente realizada y justificado por el beneficiario, el porcentaje de financiación definido en la resolución de concesión.

*Artículo 16.*– Alteración de las condiciones de la subvención.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y en todo caso la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos

kontuan hartutako baldintzen edozein aldaketak, emateko erabakia alda dezake, betiere, laguntza hori jasotzeko arau honetan ezarritako gutxienezko baldintzak babesten badira.

Helburu horietarako Turismoa Antolatzeko Zuzendaritzak aldaketarako dagokion erabakia emango du; bertan, esleitutako diru-laguntzen kopuruak egokituko dira.

2.– Diru-laguntzaren onuraduna diruz lagundutako jarduerаren garapena edo gastua larriki aldatu edo zailtzen duen edozein gorabehera jakinarazi behar dio esleipen-organoari. Era berean, diru-laguntza esleitu zion organoari diruz lagundutako proiektua aldatzea eska diezaioke, baina diru-laguntzaren helburu edo xedea aldatu gabe.

3.– Diru-laguntza justifikatzeko epearen luzapena ezingo da izan epe horren erdia edo gehiagokoa. Luzapena, hasiera batean emandako epea amaitu baino lehen eskatu behar da.

4.– Diruz lagundutako jarduerаren edo gastuaren %25 gutxienez burutzen ez bada, ekintza hori ez betetzat jotzea eragingo du diru-laguntzaren xedeetarako, eta arau-hausteagatiko dagokion espedientea tramitatuko da.

5.– Hala ere, gauzatutako inbertsioa esleipeneko ebazpenean onartutakoa baino txikiagoa bada, baina %25 baino handiagoa, emandako diru-laguntza gutxitu egingo da, betiere burututako inbertsioaren bolumenarekin proportzioan.

*17. artikulua.–* Arau-hausteak.

Erakunde onuradunak, Agindu honetan ezarritakoa betetzen ez badu, aurkeztutako datuak gezurrezkoak badira, dirua diru-laguntza ematea eragin zueneko helbururako ez den beste baterako dirua erabili badu, Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzak ondorio horretarako irekitako espedientea bideratu eta interesatuari hamabost eguneko epean entzun ondoren, diru-laguntza galduko du eta jasotako dirua gehi dagozkion interes legalak bi hilabeteko epean Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusira itzultzeko obligazioa izango du, bidezkoak diren gainerako ekintzak eragotzi gabe. Hori guztia, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Printzipio Ordenatzaileei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

***Bakarra.–*** Tramitazio telematikorako prozedura bat sortzen bada, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, berau arautzeko araudia argitaratzen denean, Agindu honetan aurrei-

o privados y, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en la presente norma para ser beneficiario de ésta.

A estos efectos, por la Dirección de Promoción Turística se dictará la oportuna resolución de modificación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

2.– El beneficiario de la subvención queda obligado a comunicar al órgano concedente cualquier eventualidad que altere o dificulte gravemente el desarrollo de la actividad o gasto subvencionado. Asimismo podrá solicitar del órgano que concedió la subvención la modificación del proyecto subvencionado, sin que en ningún caso pueda variarse el destino o finalidad de la subvención o ayuda.

3.– La ampliación del plazo concedido para la justificación de la subvención sólo podrá concederse por tiempo no superior a la mitad de aquel. La prórroga deberá ser solicitada por el beneficiario con antelación a la finalización del plazo inicialmente concedido.

4.– La no ejecución de al menos un 25% del total de la actividad o gasto subvencionado, supondrá la consideración de dicha acción como no ejecutada a efectos de subvención, lo que dará lugar a la tramitación del oportuno expediente de incumplimiento.

5.– No obstante, si la inversión materializada fuera inferior a la aprobada en la resolución de concesión, pero superior a un 25%, se procederá a realizar una minoración de la subvención otorgada, proporcional al volumen de la inversión justificada.

***Artículo** 17.* – Incumplimientos.

El incumplimiento por parte de la Entidad beneficiaria de los términos establecidos en la presente Orden, la falsedad de los datos presentados, la aplicación de la cantidad percibida para una finalidad distinta de la que motivó su concesión determinará previa tramitación del oportuno expediente incoado al efecto por la Dirección de Promoción Turística y audiencia al interesado por un periodo de quince días, la pérdida de la subvención y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del Gobierno Vasco en el plazo de dos meses las cantidades percibidas, más los correspondientes intereses legales que correspondan, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, todo ello de acuerdo con lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

***Única.–*** En el supuesto de que se desarrolle un procedimiento de tramitación telemática, de conformidad con lo establecido en el artículo 45 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, una vez publicada la norma que

kusitako laguntzak horren arabera tramitatu ahal izango dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzean, baliogabetuta geratuko da 2000ko ekainaren 30eko Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, turismoa sustatu eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena.***– Agindu honen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 16a

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

I. ERANSKINA

PREMIAZKO JARDUNA BEHAR DUTEN ZONA KALTETUAK

1.– Bilboko Itsasadarraren Ezkerraldea: Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Urtuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran, Zierbena.

2.– Pasaiako Badia: Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Pasaiako Badiaren isurialdean kokatutako Donostiako barrutia.

**Zk-2869**

AGINDUA, 2003ko apirilaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programa arautzen duena.

Sustapen Ekonomikoko helburuak dituzten hainbat laguntza-linea ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuak, V. Kapituluan, Turismoaren esparruko laguntzak arautzen ditu, eta bertako 32 bis artikuluan (abenduaren 26ko 279/2000 Dekretuak aur-

lo regule, las ayudas contempladas en la presente Orden podrán tramitarse de acuerdo con el mismo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

ANEXO I

ZONAS DESFAVORECIDAS DE ACTUACIÓN URGENTE

1.– Margen del Nervión: Abanto y Ciérvana/Abanto Zierbana, Alonsótegui, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Valle de Trápaga/Trapagaran, Zierbana.

2.– Bahía de Pasaia: Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, el territorio de Donostia-San Sebastián situado en cuenca vertiente a la Bahía de Pasaia.

**N°-2869**

ORDEN de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas.

El Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, regula en el Capítulo V las líneas de ayuda en el área de Turismo, regulando en su artículo 32 bis introducido por el Decreto 279/2000, de